

Euskadik lehen aldiz hartuko du Europako metrologia kongresurik garrantzitsuen

- *IDEKOk eta TEKNIKERek Europako 3DMC ekitaldiaren 8. edizioa antolatu dute, neurtzeaz arduratzen den zientziari buruzkoa, irailaren 26tik 28ra*
- *Aurkezpenek, hitzaldiek eta zuzeneko erakustaldiek aukera emango dute bi zentroetako instalazioetan fabrikazio aurreratuaren arlo horretako azken berrikuntza teknologikoak ezagutzeko*

2023ko uztailaren 13a.- [IDEKO](#) eta [TEKNIKER](#) zentro teknologikoen, *Basque Research and Technology Alliance* (BRTA) kideek, elkarrekin antolatu dute [3DMC](#)ren 8. edizioa. Europako metrologia kongresurik garrantzitsuen, irailaren 26tik 28ra egingo dena, lehen aldiz Euskadin.

Metrologia neurketen zientzia da. Bere aplikazioa fabrikazio industrialean, metrologia industrial gisa ezagutzen dena, funtsezkoa da fabrikazio eta mantentze prozesu eraginkorrak garatzeko, osagaien neurrien zehaztasuna eta produktuaren kalitatea hobetzea bermatzen baitu. Gainera, fabrikazio prozesuan integratutako metrologiak aukera ematen du fabrikazio akatsak in situ identifikatzeko, horien eraginkortasuna hobetzeko eta baliabideak optimizatzeko.

IDEKOk eta TEKNIKEReko instalazioetan, Elgoibarren eta Eibarren daudenek (biak Gipuzkoan), egingo da urteroko ekitaldi hau, eta arlo horretako ehun aditu baino gehiago elkartuko dira: akademiako ordezkariak, soluzio teknologikoen hornitzaileak, ikertzaileak eta industriako profesionalak.

Hiru egunetan, kongresuak metrologia dimentsionaleko teknologien azken aurrerapenen inguruko aurkezpenak, hitzaldiak eta zuzeneko erakustaldiak eskainiko ditu. Horien artean neurketa teknologiak nabarmentzen dira, hala nola fotogrametria, ikusmena, neurketa sistema eramangarriak; laser tracker edo laser eskanerra esaterako, eta hainbat aplikazio, hala nola azalerak digitalizatzea 3D eskaneatzearen bidez edo metrologia integratzea ikuskapenean fabrikazio aurreratuko prozesuetan.

Networkingerako espazioa

Gainera, 3DMC ekitaldiak lankidetzeta eta berrikuntza sustatzen ditu, sektoreko funtsezko eragileen ezagutza handitzeko helburuarekin. Erakusketa espazio baten bidez, metrologia industrialeko azken aurrerapenak eta tresnak erakusten dira, eta

neurketa tresnak eta sistemak hurbiletik ezagutzeko eta probatzeko aukera eskaintzen da.

Hitzaldira joaten diren pertsonak aukera izango dute sektore batzuetako aplikazio industrialetako arrakasta kasuak ezagutzeko; automobilgintzan, aeronautikan, espazioan edo energia eolikoan, besteak beste. Eta zientzia eta esplorazio espazialaren industriako proiektu bereziak ezagutzeko.

Era berean, ekitaldiak harremanak estutzeko eta giro lasai batean networkinga sustatzeko aukera eskainiko du kongresuan zehar egingo diren bi topaketa sozialen bidez.

3DMCri buruz

3DMC urtero egiten den Europako kongresua da, industria eta ikerketa helburuetarako 3D neurketa teknologien aplikazioan eta garapenean zentratua.

Metrologia sistemetako ikertzaileei eta azken erabiltzaileei zuzendua, hiru jardunaldi eskaintzen ditu urtero zientzia horretako gai berritzaileenak eztabaidatzeko eta sektoreko eragile nagusien artean sinergiak eratzeko.

Antolaketa batzordean ikerketa zientifiko-teknologikoko eragile nabarmenak daude, hala nola National Physical Laboratory (NPL), University College London (UCL) eta RWTH Aachen University.

IDEKOri buruz

IDEKO euskal zentro teknologikoak, BRTA aliantzako kideak, 35 urte baino gehiagoko ibilbidea du fabrikazio aurreratuan aplikatutako teknologia berriak ikertzen, garatzen eta berritzen, arreta berezia jarrita doitasunezko makina eta prozesuetan eta fabrikazioari aplikatutako adimen artifizialean.

I+G+B jarduera enpresa sarearen lehiakortasunari lagunduko dioten soluzio berritzaileak eskaintzera bideratuta dago, eta 4 ikerketa talderen inguruan egituratzen da: Dinamika eta Kontrola, Fabrikazio Prozesuak, IKTak eta Automatizazioa eta Diseinua eta Doitasun Ingeniaritza.

IDEKOk 3DMCn duen parte hartzea, Diseinu eta Doitasun Ingeniaritzako ikerketa taldearen bidez koordinatuta dago. Talde horrek espezializazio argia du; fabrikazio sistemako makinen eta mekanismoen doitasuna ziurtatzera bideratua.

Horretarako, adimen artifizialean eta 3D ikuspenean oinarritutako neurketa sistemak garatzen lan egiten du; mekanismoen eta makinen doitasuna zehazteko modelizazio aurreratua; bolumen eta karakterizazio esperimentala, makinen doitasun galera moduak identifikatzeko, eta doitasun handiko sistemen diseinua, besteak beste,

industria prozesuen doitasuna eta eraginkortasuna hobetzen laguntzen duten beste soluzio batzuen artean.

Espezializazioaren aldeko apustu horren barruan, zentroak Doitasun Ingeniaritzako laborategi bat du, bertaratutakoei metrologian dituzten azken nobedadeak eta aurrerapenak erakusteko.

TEKNIKERi buruz

TEKNIKER, BRTA aliantzako kidea, fabrikazio aurreratuan, gainazal eta materialen ingeniartzan eta ekoizpenerako IKTetan 42 urteko esperientzia espezializatua duen zentro teknologikoa da. Bere misioa da I+G+Bren bidez gizarte osoari hazkundea eta ongizatea ematea, enpresa sare osoaren lehiakortasunean modu iraunkorrean lagunduta.

Fabrikazio Aurreratuan duen estrategiaren helburua da fabrikagarritasunari eta doitasunari dagokionez prestazio berritzaileak izango dituzten prozesu berriak optimizatzea eta garatzea. Zentroak ibilbide luzea du manipulazio eta ekoizpen ekipoen industrialen doitasuna hobetzeko soluzioak garatzen, robotak zein makina-erreminta, industriaren digitalizazio eta automatizaziotik sortzen diren beharrei erantzuteko.

TEKNIKERek 3DMCn duen parte hartzea bere Doitasun Ingeniaritzako eta Metrologia Industrialeko ikerketa taldeak gidatzen du. Talde horrek zerbitzu teknologiko berriak eta prozesuan neurraketa soluzioak sortzera bideratutako teknologien eta neurraketa prozeduren garapena bultzatzen du.

Ekipoak digitalizazio teknologia txertatuetan, modelizazio gaitasunetan eta ziurgabetasuna esleitzean oinarritutako neurraketa soluzio integralak eskaintzen dizkie enpresei eta fabrikatzaileei, baita datuak prozesatzeko eta kudeaketa aurreratua egiteko metodologiak ere.

Teknikerrek metrologia dimentsionaleko laborategi bat du, lehen mailako laborategi nazional gisa jarduten duena, Espainiako Metrologia Zentroarekin (CEM) lankidetzan estuan.

[Informazio gehiago](#)

Alba Martin | GUK
680 524 722
alba@guk.eus